

Eremu asistentzialeko **Zeladoreak** euskaraz



Osakidetza

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

EDIZIOA	2016ko maiatza
ALE-KOPURUA	1.085 ale
ARGITARATZAILEA	Osakidetza
TESTUAK	Osakidetzaren Euskara Zerbitzu Korporatiboa Elhuyar Aholkularitza
DISEINUA	Begoña Paino Ortuzar
INPRIMATZAILEA	Grafo SA
L.G.	BI-764-2016

Agurra

Euskararen ezagutza nabarmen zabaldu da azken hamarkadetan. Herritarron eta erakundeen lanari esker, gero eta jende gehiagok dakigu euskaraz. Euskaraz jakitea eta euskara erabiltzea, ordea, ez da gauza bera, eta euskararen erabilerak orokorrean gora egin duen arren (esparru formaletan, esaterako), ezagutza baino askoz ere maila apalagoan suspertu da.

Egoera soziolinguistiko hori osasun-asistentzian ere hautematen da. Azken urteetan osasun-arloko enplegatu ugari euskara ikasi dute, baita hizkuntza-maila dotorea lortu ere kasu askotan; hala ere, euretariko askok oraindino erdaraz jarduten dute paziente eta erabiltzaile euskaldunekin. Ziurrenik faktore batek baino gehiagok eragiten dute jokabide hori, hala nola segurtasun-falta (azaldu beharrekoa ez ote den behar bezain zehatz adieraziko eta ulertaraziko), hizkuntzagatik okarren bat egiteko beldurra, laneko euskarazko terminologia eta fraseologia ondo ez ezagutzea, etab.

Eragozpen horietaz jabetuta, baita arlo batzuetako profesionalek pazienteekin euskaraz egiteko ereduen beharra jakinarazi zigutelako ere, duela urte batzuk ekin genion osasun-zerbitzu orokorrenetako gidaliburuak argitaratzeari. Horrela sortu ziren Medikuntza Orokorreko, Pediatriako, Larrialdietako, solairuko Erizaintzako eta beste zenbait arlotako gidaliburuak.

Liburuxka hauetan bi atal nagusi daude: batetik, pazienteekiko harremanetan gehien errepikatzen diren ekintza komunikatiboen adibideak (pazienteei gehien egiten zaizkien galderak, aldiro ematen zaizkien azalpenak eta gomendioak...), eta bestetik, arlo profesionaleko oinarritzko hiztegitxoa. Logikoa denez, bi zati horiek osatzeko, ezinbestekoa izan dugu profesional euskaldunen talde baten laguntza. Baina horrez gain, atal finko batzuek ereosatzen dute gidaliburua: pazienteekin hizkuntza ofizialak erabiltzeko protokoloa, euskarazko komunikazioa hobetzeko aholkuak eta euskaraz lan egiteko material lagungarria.

Ikusten denez, gidaliburuaren helburua xumea da: esaldi-ereduak, aholkuak eta hiztegia biltzen dituen material erabilerraza langileei eskaintzea, euskaraz lan egiten sor daitezkeen zalantzak edota gabeziak gainditzeko laguntzarren.

Gidaliburu hau eremu asistentzialeko ZELADORE elebidunentzat argitaratu da, batez ere euskaraz lan egiten ohituta ez daudenentzat. Eta Osakidetzako zeladore euskaldun batzuen laguntza estimagarriaz gauzatu dugu. Aurrerantzean Fisioterapia-zerbitzuetan euskararen erabilera areagotzeko baliozko tresna lagungarri bat sortu dugulako esperoan, eskerrik asko laguntzaile zein erabiltzaileoi.

Osakidetzaren Euskara Zerbitzu Korporatiboa

Mila esker eskuliburu hau osatzea posible egin duten Osakidetzako zeladoreen lan-taldeari:

Agirre Berezibar, Pantxike	Barrualde-Galdakaoko ESI
Arbaizagoitia Tellaeche, Maria Yolanda	Debabarreneko ESI
Elgarresta Areizaga, Maria Elena	Goierri-Urola Garaiko ESI
Garmendia Larrañaga, Onditz	Goierri-Urola Garaiko ESI
Ostolaza Etxaniz, Miren Aintzane	Bidasoko ESI
Paskual Marcilla, Eneko	Donostialdeko ESI
Rekakoetxea Etxebarria, Juan	Barrualde-Galdakaoko ESI
Uranga Larrañaga, Maria Teresa	Debabarreneko ESI



1	PAZIENTEEKIKO HARREMANAK	9
1.1.	Pazienteekin hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	9
	Erabiltzaileari ahozko komunikaziorako hizkuntza aukeratzea ahalbidetu	9
	Agurraren ostean, euskaraz jardun nahi duten pertsonak haien hizkuntzan artatu	9
	Dokumentazioa, orokorrean, bi hizkuntza ofizialetan eman	9
1.2.	Komunikazioa hobetzeko aholkuak	10
1.3.	Zeladoreen ekintza komunikatiborik ohikoenen adibideak	11
	Agurra eta lehen hitzak pazienteekin	11
	Zeladoreak pazientea agurtu eta bere burua aurkeztu	11
	Pazientearen identifikazioa egiaztatu	11
	Pazienteari haren egoeraren gaineko informazioa eskatu	11
	Pazientea ospitaleratu	12
	Ospitaleratu aurretik, pazienteari azaldu	12
	Ospitaleratu aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu	12
	Pazientea ospitalizazio-solairura eraman bitartean, haren egoeraz galdetu	12
	Ospitalizazio-solairura heltzean	13
	Pazientea tarteko unitate batera eraman edo lagundu: ebakuntza-gelara, proba osagarrietara, errehabilitaziora, kontsultara	13
	Unitatera eraman aurretik, pazienteari azaldu	13
	Unitatera eraman aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu	13
	Pazienteari mugitzeko instrukzioak eman	14
	Pazientea lasaitu	14
	Pazienteari haren egoeraz galdetu	15
	Pazientea animatu	15
	Pazientearekin tarteko unitatean: ebakuntza-gelan, proba osagarrietan, errehabilitazioan, kontsultan	15
	Unitatean, pazienteari lehen azalpenak eman	15
	Unitatean, pazienteari instrukzioak eman	16
	Unitatean, pazientea lasaitu eta animatu	16
	Unitatean, pazientearen ahaleginak eskertu	16
	Unitatean, pazientearen senide edo lagunei azalpenak eman	17

Aurkibidea

- Pazientearekin tarteko unitatetik hasierako unitatera itzuli 17
 - Hasierako unitatera itzuli aurretik, pazienteari azaldu 17
 - Hasierako unitatera itzuli aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu 17
 - Osasun-profesionalen gomendioak betetzeko esan 18
 - Hasierako unitatera itzulita, pazientea eta senideak agurtu 18
- Ospitalizatutako pazienteei posizioz aldatzen lagundu 18
 - Posizioz aldatu aurretik, pazienteari azaldu 18
 - Posizioz aldatu aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu 18
 - Posizioz aldatu bitartean, pazienteari instrukzioak eman eta animatu 18
 - Posizioz aldatu ondoren, pazienteari ondo dagoen galdetu 19
- Ospitalizatutako pazienteak gelaz aldatu 19
 - Gelaz aldatu aurretik, pazienteari azaldu 19
 - Gelaz aldatu aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu 19
 - Gela berrira heltzean 19
- Ettxeratu behar duen pazientearekin anbulantziara edo kalera joan 20
 - Anbulantziara edo kalera eraman aurretik, pazienteari azaldu 20
 - Anbulantziara edo kalera eraman aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu 20
 - Osasun-profesionalen gomendioak betetzeko esan 20
 - Anbulantziara edo kalera eramanda, pazientea eta senideak agurtu 20
- Zeladoreen ohiko beste ekintza komunikatibo batzuk 21
 - Pazientearen egoeraren gaineko galderak: minaz edo ondoezaz, nekezaz, gosez edo egarriaz, loguraz, tenperaturaz 22
 - Debekuak 22
 - Pazientearen beldurrari edo kexari erantzun 23
 - Megafonia bidezko mezuak 23
 - Pazienteak edo senideak administraziora bideratu 24
 - Hildako pazientearen gorpua eraman aurretik, senideei jakinarazi 24

- 2 HIZKUNTZARI BURUZKO ZENBAIT AZALPEN ARGIGARRI 25**
 - 2.1. Izena galdetzeko espideak 25
 - 2.2. Moduzko perpausak 26

Aurkibidea

2.3. Denborazko perpausak.....	26
2.4. Helburuzko perpausak.....	27
2.5. -ko, geroaldiaren aspektu-marka.....	28
2.6. Zenbakiak.....	29
2.7. Orduak.....	30
2.8. Sentipenen adierzmolde jatorrak.....	32
2.9. Agintera.....	33
2.10. Debekatuak adierazteko esakuneak.....	33
2.11. Lasaitzeko esakuneak.....	34
2.12. Animo interjekzioak.....	34
3 LANEKO OINARRIZKO HIZTEGIA.....	35
3.1. Osasun-zerbitzuak eta instalazioak.....	36
3.2. Giza gorputza.....	38
Gorputzeko atalak.....	38
Organoak.....	39
Eskeletoa.....	39
3.3. Gaixotasun, lesio eta osasun-arazorik ohikoenak.....	40
3.4. Probak, analisiak, interbentzioak.....	42
3.5. Laneko hainbat termino espezifiko.....	43
3.6. Ebakuntza-geletako hainbat tresna.....	46
3.7. Irudiak.....	47
Gorputzeko atalak.....	47
Organoak.....	49
Eskeletoa.....	50
4 BALIABIDEAK.....	51
4.1. Gramatika, idazkera, estiloa.....	51
4.2. Ariketak, praktikak, online ikastaroak.....	51

Aurkibidea

- 4.3. **Hiztegiak**.....52
 - Hiztegi orokorrak.....52
 - Euskarazko hiztegi orokorrak.....52
 - Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco hiztegiak.....52
 - Euskara-Ingelesa/English-Basque hiztegiak.....52
 - Euskara-Frantsesa/Français-Basque hiztegiak.....52
 - Hiztegi orokor bereziak.....52
 - Hiztegi espezializatuak53
 - Terminologia banku publikoa.....53
 - Osasun-arloko hiztegi espezializatuak53
- 4.4. **Zuzentzaile ortografikoak**54
- 4.5. **Hizkuntzari buruzko kontsulta-zerbitzuak**.....54
- 4.6. **Euskararen normalizazioa Osakidetzan**54
- 4.7. **Osakidetzako zeladoreentzako eskuliburuak euskaraz**55
- 4.8. **Argibide gehiago**.....55



1. PAZIENTEEKIKO HARREMANAK

1.1. Pazienteekin hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

➔ ERABILTZAILEARI AHOZKO KOMUNIKAZIORAKO HIZKUNTZA AUKERATZEA AHALBIDETU

- Aurrez aurre, telefonoz, megafoniarik..., **hasierako agurra eta lehenengo hitzak euskaraz** izan behar dira beti, erabiltzailearen lehentasunezko hizkuntza antzemateko.
- Bai profesional elebidunak bai euskarazko arreta bermatzen duten zerbitzuak  **ikurraren bidez identifikatuta** egoteak erabiltzaileei lagundu egiten die euskaraz non eta norekin egin dezaketen jakiten.

➔ AGURRAREN OSTEAN, EUSKARAZ JARDUN NAHI DUTEN PERTSONAK HAIEN HIZKUNTZAN ARTATU

- **Profesional elebidunek** erabiltzailearen hizkuntza-aukera errespetatu eta euskaraz artatu behar dituzte hizkuntza horretan hitz egin nahi duten herritarrek.
- **Euskaraz ez dakiten profesionalak** erraztu egin behar dute lankide elebidun batek herritarra euskaraz arta dezan. Eta ezinezkoa bada, erabiltzaileari egoera azaldu behar diote era adeitsuan.
- **Zerbitzuko arduradunek** euren profesional-taldeak antolatu behar dituzte, ahalik eta txanda eta zeregin gehienetan euskarazko arreta ziurta dadin.

➔ DOKUMENTAZIOA, OROKORREAN, BI HIZKUNTZA OFIZIALETAN EMAN

- **Dokumentazio estandar guztia** bi hizkuntza ofizialetan entregatu behar zaie bai pazienteei (hitzorduek, inprimakiak, egiaztagirak, gaixotasun eta proba medikoei buruzko informazioa eta aholkuak, baimen informatuak, zainketak, ariketak, dietak...), bai Erakundeko enplegatuei ere (iragarkiak, zirkularrak, inprimakiak, administrazioako agiriak...)
- Halaber, posible den neurrian, ahalegina egin behar da pazienteak **dokumentazio klinikoa** bere hizkuntzan jaso dezan.
- Zerbitzuko **errotuluak, kartelak eta hizkuntz paisaiako bestelako elementuak** (formalak edo informalak izan) bi hizkuntza ofizialetan egon behar dira.
- **Internet edo telefonia mugikorraren bidezko komunikazio telematikoetan**, erabiltzailearen lehentasunezko hizkuntza errespetatu behar da. Eta lehentasunezko hizkuntza ezagutu ezean, edo komunikazioa orokorra bada eta ez indibidualizatua, bi hizkuntza ofizialak erabili behar dira.

1.2. Komunikazioa hobetzeko aholkuak

Hona hemen euskarazko komunikazioa hobetzen lagundu diezaguketen zenbait jokamolde:

- Gogoan izan oso garrantzitsua dela herritarrari **lehen hitzak euskaraz** esatea, horrela euskaldunari atea irekiko baitiogu euskaraz jarrai dezan.
- **Hizkera ulerterraza eta naturala** erabili. Saiatu euskara hurbila erabiltzen, eta ahal baduzu, egokitu hizkera solaskidearen moldeetara. Adibidez, solaskidearen euskalkia baldin badakizu, euskalki horretan egin.
- Erabili **hitz ezagunak eta ulerterrazak**. Hiztegia ez dadila komunikaziorako oztopoa izan.
- **Ez erabili hitanoa** (hika), solaskidea hasi ezean behintzat.
- Telefonoz, **hitz egin poliki**, eta berbarik garrantzitsuenak azpimarratu edo errepikatu. Zaindu erritmoa eta doinua.
- Osakidetzako zeladore baten laguntza behar duen pazienteak osasun arazo bat du. **Utziozu hitz egiten** eta bere egoera azaltzen.
- **Pazientzia izan**. Guretzat arrunta edo erraza denak ez du zertan hala izan besteentzat.
- **Ez itsutu zuzentasunarekin**. Esaldi bat aise eta ondo ulertzeak garrantzi handiagoa du gramatika arau guztiak ondo betetzeak baino.
- Hobe da **tarteka gaztelaniazko hitzen bat** esatea, paziente euskaldunari dena erdaraz egitea baino.
- Solaskidea zugandik urrun badago, saiatu **beragana hurbiltzen**.
- Ez ahaztu **irribarreak** gozatu eta erraztu egiten dituela giza harremanak.

1.3. Zeladoreen ekintza komunikatiborik ohikoenen adibideak

➔ AGURRA ETA LEHEN HITZAK PAZIENTEEKIN

Zeladoreak pazientea agurtu eta bere burua aurkeztu

- Egun on (eguerdi on / arratsalde on). Edurne Busto zara? Ni Dani Lopez, zerbitzu honetako zeladorea.
- Kaixo. Milagros Agirre andrea zara, ezta? Ni hemengo zeladorea naiz. Garbiñe dut izena.
- Egun on (eguerdi on / arratsalde on). Nekane San Juan naiz. Zu mugitzen laguntzera nator.
- Egun on (eguerdi on / arratsalde on). Karlos Ortega naiz, ospitaleko zeladorea. Zuk nola duzu izena?
- Kaixo, Mari Asun, egun on (eguerdi on / arratsalde on). Urte askotarako. Josune Garzia naiz, zeladorea.
- Egun on, Jose Angel. Euskaraz badakizu? Ni Julen Urrutia naiz, hemengo zeladorea.

Pazientearen identifikazioa egiaztatu

- Barkatu, Miren, utzidazu zure eskumuturrekoa ikusten. Holan, ederto.
- Erakutsidazu, mesedez, identifikazio-eskumuturrekoa. Eskerrik asko.
- Izena Luis duzula esan didazu. Eta abizena Bilbao, ezta?
- Agirre duzu abizena, ezta?
- Hernando Abaitua zara, ezta?

Pazienteari haren egoeraren gaineko informazioa eskatu

- Bakarrik zaude, Leire? Ez dago zure familiako inor hemen?
- Bakarrik zaude? Familiakoei deitu diezu?
- Zelan etorri zara? Oinez?
- Anbulantzia ekarri zaituzte?
- Ondo zaude? Ez zaude zorabiatuta, ezta?
- Ondo har dezakezu arnasa?
- Besoa mugi dezakezu apur bat?
- Minik nabaritzen duzu oina lurrean jartzean?
- Atzo ekarri zintuzten ospitalera?

➔ PAZIENTEA OSPITALERATU

Ospitaleratu aurretik, pazienteari azaldu

- Dakizunez, ospitaleratze programatua daukazu Kardiologia unitatean. Gurpil-aulkia ekarri dut, zu solairura eramateko. Onarpenean paperak hartu ditut, eta kontrolean entregatuko ditugu solairura heldu bezain laster. Esan zeure senarrari gauzak hartu eta gurekin etor dadila, mesedez.
- Medikuek agindu bezala, orain daukazun hodi eta aparatuekin eraman behar zaitut Larrialdietatik ospitalizazio-gelara. Zure senideek dagoeneko badakite zer gelalara goazen. Eurek hartu dituzte zure gauzak, eta goian elkartuko zarete.
- Psikiatria-unitatetik deitu digute, zu ospitaleratzeko prest daudela esanez. Gure zain daude. Etorri, mesedez, gurekin.

Ospitaleratu aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu

- Marina Goiriren ahaideak (senideak) zarete? Esan digutenez, badirudi zuen amama ospitalean utziko dutela. Gela-zenbakia jakin bezain laster, abisatu egingo dizuegu.
- Alberto ospitalean uztea erabaki dute medikuek. Bosgarren solairuan geratuko da, Nefrologia-unitatean. Hemen ondo zainduta egongo da eta beharrezko proba guztiak egingo dizkiote.
- Dakizunez, Neurologia-unitatean geratuko da ospitalizatuta, laugarren solairuan, 412. gelan. Hartu haren gauza guztiak eta igo itzazu gelara, mesedez.
- Medikuek esan duenez, zuen aitita ospitalean geratu behar da egun batzuetan. Digestio Aparatuaren unitatera eroango dugu, lehenengo solairuko 110. gelara. Hartu haren gauzak eta igo gelara, mesedez.
- Larrialdietako pediatrek esan didate umea Jaioberrien unitatetara eraman behar dudala, zainketa berezietara. Gurasootako bat egon prest, mesedez, umea ohatilan ateratzen dudanean, nirekin etortzeko.
- Mikel Psikiatriako solairuan ospitaleratzen duten bitartean, senideok atartean itxaron behar duzue. Amaitutakoan, osasun-langileak zuekin jarriko dira harremanetan.

Pazientea ospitalizazio-solairura eraman bitartean, haren egoeraz galdetu

- Horrela ondo zoaz?
- Zorabiatu (al) zaude?
- Komunera joan nahi duzu?
- Pixka batean gelditzea nahi duzu?

Ospitalizazio-solairura heltzean

- Hauxe da Pneumologia-unitatea. Lehenengoz dokumentazioa entregatuko dugu, eta ondoren gelara eramango zaitut. 302. gelan egongo zara, gogoratu. Hemen profesional-talde ona dago; ondo artatuko zaituzte.
- Begira, Pedro, pasillo honetan hasten da Barne Medikuntzaren unitatea. Zu bukaerako gela batean egongo zara, 422an. Hemengo enplegatuek azalduko dizkizute solairuko arauak eta ordutegiak.
- Bueno, Ana, ohean utziko zaitut. Orain etorriko da unitateko erizain bat zugana. Zure amak ere badaki zer gelatan zauden. Sendatu laster. Adio.
- Hemen dago Neonatologiako Zainketa Intentsiboen unitatea. Sartzeko, txirrina jo behar da beti. Orain umea sartuko dut nik, eta, bitartean, zuek gelditu itxarongelan. Laster etorriko dira zuekin hitz egitera. Ia umea arin osatzen den, etxera itzultzeko. Agur.

→ PAZIENTEA TARTEKO UNITATE BATERA ERAMAN EDO LAGUNDU: EBAKUNTZA-GELARA, PROBA OSAGARRIETARA, ERREHABILITAZIORA, KONTSULTARA...

Unitatera eraman aurretik, pazienteari azaldu

- Dakizunez, orain Larrialdietan gaude, eta Erradiologiara eraman behar zaitut, X Izpietara.
- Erradiologia zerbitzura heltzen garenean, itxarongelan utziko zaitut. Eta behin erradiografia egin ondoren, solairu honetara itzuliko gara, lehen artatu zaituen medikuak berriz ere ikus zaitzan.
- Orain alde kirurgikoraino lagunduko dizut, eta bertan itxarongelan egon beharko duzu, deitzen dizuten arte.
- Maria, itxaron hemen apurtxo batean, mesedez. Lankide bat etorriko da zure bila berehala, eta berak eramango zaitu ebakuntza-gelara.
- Errehabilitaziora eramango zaitut. Han ordubete inguruan jardun behar duzu fisioterapeuta batekin, zenbait ariketa egiten. Gero gelara ekarriko zaitut berriro.

Unitatera eraman aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu

- Orain laugarren solairura eroan behar dut Jose Mari, erradiografia egitera. Gura baduzue, bertako itxarongelan itxoin ahalko duzue.
- Proba bat egitera eraman behar dut Nerea. Ordu erdi bat-edo izango da. Hirugarren solairuan egingo diotenez, bertan itxaron dezakezue.
- Guri oraintxe eramateko esan digute medikuek. Proba lehenbailehen egin nahi diote. Eurek esplikatuko dizute gehiago.

- Medikuak esan duenez, ez da oso larria, baina operazioa egin behar diote. Egon zaitezte lasai.
- Nik ez dakit zer duen. Medikuak ikusi du eta laster emango dizkizue azalpenak.
- Barka ezazue, Alfredoren errehabilitazio-ordua da orain. Errehabilitazio-gelara eraman behar dut. Ordubete-edo itxaron behar duzue hemen, berarekin ezin baita inor sartu. Gero, nik neuk ekarriko dut berriz hona.

Pazienteari mugitzeko instrukzioak eman

- Ohatilara pasako zaitugu, eta zure laguntza behar dugu. “Bat, bi eta hiru” esandakoan, altxa ipurdia. Ados?
- Orain zutitu egin behar zara. Erlaxatu gorputza, mesedez. Besoetatik hartuko zaitut, laguntzeko. Esaten dizudanean, egin indar pixka bat eta neuk altxatuko zaitut.
- Orain, mugitzen lagunduko dizut. Pasatu besoak nire buruaren atzetik eta heldu ondo lepoari.
- Jar zaitez tenteago, ahalik eta zuzenen.
- Horko eserlekura eramango zaitut, atsedeen apur bat har dezazun. Jiratu pixka bat oina ezkerretarantz.
- Lasai, gelditu hemen eta hartu behar duzun denbora; ez dugu presarik. Prest zaudenean, jarraitu egingo dugu.

Pazientea lasaitu

- Gurpil-aulkian eseriko zaitut. Zu egon lasai, eta egizu nik esaten dizudana, arren. Ikusiko duzu zer eroso joango zaren.
- Lasai, neuk lagunduko dizut, ez zara jausiko.
- Ibili astiro. Besotik helduko dizut, eror ez zaitezten.
- Etzan zaitez ohatilan eta ez tolestu hanka. Saiatu erlaxatzen.
- Oratu (heldu) ondo makuluei eta goazen geldiro. Zeuk markatu erritmoa.
- Laguntzen baduzu, hobeto egingo dugu eta arinago amaituko.
- Trankil, nik esango dizut mugimenduak zelan egin. Ez duzu minik igarriko.
- Ez egin indarrik, utzi guri mugitzen. Ez duzu minik izango, ikusiko duzu.
- Hanken gainean ez ipini ezer, mesedez, eroso joateko eta minik ez izateko. Neuk eskatuko diot zure emazteari gauzak hartu eta eraman ditzala.

Pazienteari haren egoeraz galdetu

- Ondo zaude?
- Minik daukazu?
- Horrela, eroso zoaz?
- Gurpil-aulki bat ekarriko dizut hobeto joateko?
- Geldialdi bat egingo dugu atsedean hartzeko?
- Nekerik edo zorabiorik nabaritzen baduzu, esan, eta gurpil-aulkia ekarriko dizut.

Pazientea animatu

- Aupa! Oso ondo zoaz eta!
- Primeran! Pixka bat gehiago eta listo!
- Eutsi pitin batean, heltzear gaude eta.
- Bapo! Lehengo egunetik hona asko aurreratu duzu!
- Animo, gaur eguraldi ona dugu eta!

➔ **PAZIENTEAREKIN TARTEKO UNITATEAN: EBAKUNTZA-GELAN, PROBA OSAGARRIETAN, ERREHABILITAZIOAN, KONTSULTAN...**

Unitatean, pazienteari lehen azalpenak eman

- Operazio-gelan zaude. Hemen etzan behar duzu, ahoz gora. Egon lasai, orain etorriko da medikua eta ebakuntzari buruzko azalpenak emango dizkizu.
- Sabin Telleria, zatoz nirekin, mesedez. Horko gelan egingo dizute erresonantzia. Neuk lagunduko dizut.
- Dokumentazioa entregatu dut, eta laster deituko dizute. Ni egongo naiz zurekin, egon trankil.
- Orain itxarongelan egon behar dugu zure izena esan arte.
- Itxaron aulki honetan. Laster deituko dizute.
- Orain, ebakuntza egiteko prestatuko zaituzte. Egon lasai. Zer edo zer behar baduzu, eskatu arazo barik.

Unitatean, pazienteari instrukzioak eman

- Eseri ohatilan eta askatu alkandora.
- Erantzi oinetakoak, mesedez.
- Jaso jertsearen mauka, mesedez.
- Erantzi gerritik gorako arropa eta etzan ahoz gora ohatilan. Oraintxe etorriko da medikua eta zurekin egingo du berba.
- Mesedez, etzan zaitetz hemen, ahoz beheara.
- Jiratu pixka bat burua eta ipini kokotsa hemen.
- Utzi gauza guztiak erretilu honetan. Telefonoa piztuta baldin badaukazu, itzali, mesedez.
- Komunera joan behar baduzu, esan orain, eta lagundu egingo dizut.

Unitatean, pazientea lasaitu eta animatu

- Ez larritu, dena ongi aterako da eta.
- Azkar egingo dizute proba. Erraza da eta ez du minik egiten, ikusiko duzu.
- Ebakuntza-gelan sartuko gara. Lasai egon, dena ondo joango da eta.
- Barruan zaudela, egin kasu bertako profesionalei, eta dena irtengo da ondo.
- Ebakuntza egingo dizun zirujaua oso ona da. Izan konfiantza.
- Proba hau jende askori egiten diote. Ikusiko duzu gero zer ondo.

Unitatean, pazientearen ahaleginak eskertu

- Oso ondo ari zara, Mikel, ederki!
- Eutsi Ane, eutsi, laster amaituko da eta!
- Horrela, horrela! Primeran!
- Askok ari zara hobetzen, oso ondo!
- Egunetik egunera hobeto zabilta!
- Zer? Dena ondo joan da, ezta? Orain medikuari kasu egin eta ikusiko duzu zer azkar sendatuko zaren.

Unitatean, pazientearen senide edo lagunei azalpenak eman

- Ane Loidiren semea zara? Oraindik ez dute bukatu, egon lasai. Bukatzen dutenean hots egingo dizute.
- Proba egiten amaitzen dutenean, dena esplikatuko dizute. Lasai hartu.
- Ni zeladorea naiz eta ez daukat informaziorik. Medikuek laster esango dizute zer bait. Oso ondo ulertzen dut zuen egoera, baina pazientzia pitin bat izan, mesedez.
- Orain itxaron egin behar duzue; nik ez dakit ezer.
- Barkatu, ni ez naiz medikua; ezin dizuet holako informaziorik eman. Gero hitz egingo duzue medikuarekin.
- Proba egin ostean, medikuarekin hitz egiteko aukera izango duzue, baina, segur aski, emaitzak ikusi arte ezingo dute ezer baieztatu.
- Luis Lopategiren ahaideak zarete? Zatozte nirekin, mesedez.
- Operazioa amaitu da eta bizkortze-gelara eroan behar dugu Markel. Orain medikua etorriko da zelan dagoen esplikatzera.
- Miren Txoperenaren alaba zara? Proba bukatuta dago. Itxaron pixka batean hemen; orain irtengo da medikua zurekin hitz egitera.

→ PAZIENTEAREKIN TARTEKO UNITATETIK HASIERAKO UNITATERA ITZULI

Hasierako unitatera itzuli aurretik, pazienteari azaldu

- Orain lehengo unitatera eramango zaitut, Agirre doktoreak berriz ikus zaitzan.
- Orain Larrialdietako itxarongelan utziko zaitut. Han daude zure senideak, eta laster deituko dizue berriro medikuak.
- Orain, ebakuntza egin ostean, zure gelara joango gara berriz. Medikua bihar goizean pasako da eta beharrezko azalpen guztiak emango dizkizu.

Hasierako unitatera itzuli aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu

- Behin proba guztiak eginda, lehengo unitatera eramango dut Josune, Galparsoro doktoreak berriro ikus dezan. Hemen itxaron dezakezue edo gurekin etorri.
- Josune Herreraren seme-alabak? Dakizuenez, zuen amari kolonoskopia egin diote eta laster ospitalizazio-gelara eroan behar dut berriro. Baten batek hemen itxaroten baduzue, medikuagaz berba egiteko aukera izango duzue.

Osasun-profesionalen gomendioak betetzeko esan

- Azkarrago osatzeko, egizu ondo medikuak esan dizun guztia.
- Medikuak ordu batzuetan etzanda egoteko eskatu badizu, ez jaiki. Posizioz aldatu nahi baduzu, jo ezazu txirrina eta laguntzera etorriko gara.
- Medikuak bihar arte ezer ez jateko esan badizu, egiozu kasu, gose izan arren.
- Medikazioa erizainak agindu dizun moduan hartu behar duzu; oso garrantzitsua da.

Hasierako unitatera itzulita, pazientea eta senideak agurtu

- Bueno, ebakuntza egin dizute eta gaur gela honetan geratu behar duzu. Ondo kontrolatuta egongo zara. Egizu ondo lo, eta ea azkar osatzen zaren. Bihar arte.
- Orain Larrialdietako itzarongelan egon behar duzue, anbulantzia etorri eta aitona etxera eraman arte. Ea bizkor sendatzen den. Agur.

→ OSPITALIZATUTAKO PAZIENTEEI POSIZIOZ ALDATZEN LAGUNDU

Posizioz aldatu aurretik, pazienteari azaldu

- Egun on (arratsalde on), Antonio. Posizioz aldatzea komeni zaizula esan digu erizainak. Zu laguntzera etorri gara. Egon trankil, dena egingo dugu guk, eta ez duzu minik izango.
- Kaixo, Rosa. Txirrina jo duzu etzaneraz aldatzera etor gaitezen, ezta? Ondo da. Esan nola jarri nahi duzun.
- Kaixo, Miguel. Zer gura duzu? Ohetik aulkira pasatzea? Ederto, neuk lagunduko dizut kontu handiz.

Posizioz aldatu aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu

- Egun on (arratsalde on), zuen ama posizioz aldetzera gatoz. Axola ez bazaizue, irten pixka baten pasillora, mesedez. Paziente mugitzen dugunean deituko dizuegu.
- Lehenengo egunotan, ez utzi Pedro Mariri bakarrik zutitzen eta ohetik aulkira pasatzen, badaezpada. Medikuak esan du hanka geldi-geldi eduki behar duela egun batzuetan. Aulkian eseri nahi duenean, deitu geuri, eta berehala etorriko gara laguntzera.

Posizioz aldatu bitartean, pazienteari instrukzioak eman eta animatu

- Ohean jesartzen lagunduko dizut, Carmen. Oratu bi eskuekin goiko triangelutik, gogor. Horrela, bai. Orain, tolestu apur bat belaunak, eta nik esaten dizudanean, egin indarra orpoekin, ipurdia atzerantz bultzatuz. Bat, bi..., hiru! Oso ondo!

- Ohetik altxatzen lagunduko dizut. Lehenengo, ohe ertzero mugituko zaitut. Horretarako, utzi behar didazu beso bat sorbaldaren atzetik eta bestea izterren azpitik sartzen. Holaxe! Orain, bizkarra zuzentzen dizudan bitartean, kokatu oinak lurrean. Horrela, oso ondo! Eta azkenik, besapeetatik tiratzen dizudan bitartean, zapaldu ondo lurrean eta zutitu. Primeran!

Posizioz aldatu ondoren, pazienteari ondo dagoen galdetu

- Ondo jesarrita zaude aulkian? Minik nabaritzen duzu? Pixka bat mugitzea nahi duzu?
- Orain egon pixka batean alboz etzanda, ezkerretara begira. Ezkerreko hanka burko baten gainean eta pitin bat tolestuta utzi dizut, ez nekatzeko. Bizkarraren atzean ere beste burko bat jarri dizut, bizkarrezurra zuzen egon dadin. Ondo zaude?

→ OSPITALIZATUTAKO PAZIENTEA GELAZ ALDATU

Gelaz aldatu aurretik, pazienteari azaldu

- Egun on (eguerdi on, arratsalde on), Rakel. Solairu honetako beste gela batera eramango zaitut. Aldatuko zintuztela esan zizuten atzo, ezta? Gela berrian bakarrik egongo zara, eta hobeto. Orain batu zure gauza guztiak, mesedez, hemen ezer ez uzteko. Gelara oinez joan nahi baduzu, lagunduko dizut astiro; bestela, aulki bat ekarriko dut zu eramateko.
- Kaixo, Luis. Prieto doktoreak azaldu dizun moduan, bakartze-gelatik Arnas Aparatuaren ospitalizazio-solairura pasako zara. Zu eramateko beste ohe bat prestatu dugu, baita oxigenoa eta seruma (sueroa) ere. Dokumentazioa ere prest daukagu. Orain ohe berrira pasako zaitugu, erizainen kontroletik deitu bezain laster joan ahal izateko. Zure gauzak gurasoek eramango dituzte, lasai.

Gelaz aldatu aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu

- Rosa Gorritiren alaba zara? Orainsu deitu digute, Kardiologia-unitatean ohe libre bat dagoela esateko. 320. gela da. Ama ohean eramango dugu, seruma, zunda eta guzti. Ardura ez badizu, hartu zuk beraren gauza guztiak eta eraman hara, mesedez.
- Egun on (eguerdi on, arratsalde on). Medikuek esan dizueenez, zuen semea Zainketa Intentsiboetatik ospitalizazio-solairura eramango dugu. Orain, talde sanitarioaren laguntzaz, ohe bat prestatuko dugu behar dituen gauza guztiekin. Bitartean, hartu zuen gauzak eta eraman 4. solairura, 412. gelara, mesedez.

Gela berrira heltzean

- Hauxe da gela berria, Mireia. Aurrekoaren pasillo berean dago; bestea 220a zen eta hau 224a. Momentuz bakarrik egongo zara hemen, eta lehengo profesional-talde berak artatuko zaitu.
- Begira, Alberto, pasillo honetan dago Nefrologia-unitatea. Erizaintzako kontroleko baten bat etortzen denean esango digu zein gelatan egongo zaren. Berak azalduko dizkizu solairuko arauak eta ordutegiak.

- Bueno ba, Gemma, ohean utziko zaitut, aparatu guztiekin. Orain etorriko da unitateko erizain bat zugana. Zure senarrak dagoeneko badaki zer gelatara ekarri zaitugun. Sendatu azkar. Adio.

➔ **ETXERATU BEHAR DUEN PAZIENTEAREKIN ANBULANTZIARA EDO KALERA JOAN**

Anbulantziara edo kalera eraman aurretik, pazienteari azaldu

- Jose Goñi Lasheras? Anbulantzia-zerbitzua eskatu duzu etxera joateko, ezta? Neuk lagunduko dizut anbulantziaraino. Ondo bazaude, oinez joango gara; bestela, gurpil-aulki bat ekarriko dut. Ez ahaztu gauza guztiak eta dokumentazioa jasotzea. Zure senideek badakite etxera zoazela?
- Egun on (eguerdi on, arratsalde on), Mila. Orain dela gutxi abisatu digute alta eman dizutela eta etxera joango zarela. Semearen kotxean joango zara, ezta? Bera iritsi bitartean, lagundu egingo dizut gauzak batzen. Gurpil-aulki bat ere ekarriko dut, kotxeraino jaisteko; horrela ez zara nekatuko.

Anbulantziara edo kalera eraman aurretik, pazientearen senide edo lagunei azaldu

- Martin Gomezen semea zara? Aita etxera kotxez eramango duzula esan didate. Dena prest baldin badaukazue, kotxearen bila joan zaitezke, eta, bitartean, neuk lagunduko diot aitari ospitaleko irteeraraino. Gurpil-aulki bat ekarriko dut. Alta-txostena eta gauza guztiak gordeta daukazue?
- Miriam Garateren senideak zarete? Anbulantzia-zerbitzua eskatu duzue etxera eramateko, ezta? Gutxi barru ospitaleko atearen aurrean egon behar dugu pazientearekin. Jaso itzazue, mesedez, gauza guztiak eta dokumentazioa. Prest zaudetenean, neuk lagunduko dizuet anbulantziaraino.

Osasun-profesionalen gomendioak betetzeko esan

- Etxera ailegatzen zarenean, irakurri arretaz medikuaren txostena eta egizu dena berak agindu bezala.
- Etxean irakurri berriro medikuaren papera eta bete ezazu dena ondo, aurrerantzean konplikaziorik ez izateko.
- Ez ahaztu medikazioa esan dizuten moduan hartzea; oso garrantzitsua da.

Anbulantziara edo kalera eramanda, pazientea eta senideak agurtu

- Bueno, Jose, susperraldia ondo joango dela espero dut. Zorte ona izan.
- Agur, Nekane. Badakizu: ondo egin medikuak esan dizun guztia, eta ea laster sendatzen zaren.
- Agur, Txomin. Orain, egun batzuetan etxean lasai, ebakuntza ondoko fase osoa pasa arte. Izan pazientzia, eta animo!

→ ZELADOREEN OHIKO BESTE EKINTZA KOMUNIKATIBO BATZUK

Pazientearen egoeraren gaineko galderak

• Minaz edo ondoezaz

- Min(ik) daukazu?
- Minduta daukazu hanka?
- Min handia duzu, ezta?
- Zer moduz zaude? Ondo zaude?
- Minberatuta daukazu muskulua, ezta?
- Minik egin dizute?
- Umeak sukarrik izan (al) du?
- Oraindik jarraitzen duzu ondoezik?
- Zorabiatuta zaude?
- Sastadarik nabaritzen duzu sabelean?
- Hobetoxeago zaude orain?

• Nekeaz

- Nekatuta zaude?
- Itolarrian etorri (al) da?
- Apur batean jesarri gura duzu hemen?
- Aulki bat ekarriko dizut esertzeko?
- Arnasestuka ikusten zaitut.
Nekerik sumatzen (al) duzu?

• Goseaz edo egarriaz

- Gose zara?
- Egarri zara?
- Goseak zaude?
- Gosez etorri zara, ezta?



- Zerbait jan nahi duzu?
- Noiztik ez duzu ezer jan?
- Edalontzi bat ur ekartzea nahi duzu?
- Ura edan behar duzu?

• **Loguraz**

- Logura zara?
- Logurak zaude?
- Aharrausika zabilta? Logale zara, ezta?
- Logurarik nabaritzen duzu?
- Horrenbeste ordu lo egin barik, logurak erreta egongo zara, ezta?
- Pertsiana jaitsiko dut hobeto lo egin dezazun?

• **Tenperaturaz**

- Hotz zara?
- Bero zara?
- Hotzak zaude?
- Hotzik igartzen duzu?
- Horrela ez zara hoztuko, ezta?
- Tapaki (manta) bat ekarriko dizut?
- Jertsea erantzten laguntzea nahi duzu?
- Hemen bero egiten du. Leihua irekitzea nahi duzu?
- Hobeto gaude hemen epeletan, ezta?

Debekuak

• **Pazienteei**

- Ez, ez jarri horrela hanka. Goian eduki behar duzula esan dizu medikuak, ezta?
- Proba egin arte ezin duzu ezer jan, gogora ezazu.
- Orain ez zaizu komeni altxatzea. Bihar etorriko naiz eta jaikitzen lagunduko dizut.

- Barkatu, baina ordu hauetan ezin zara altxatu.
- Hemen ezin da jan, debekaturik dago.
- Telebistaren bolumena oso ozen (altu) daukazue. Jaits ezazue pixka bat, mesedez.
- 12:00etatik aurrera, telebista amatatuta (itzalita) egon behar da.
- Komunera ezin zara bakarrik joan. Jo ezazu txirrina eta berehala etorriko gara laguntzera.
- Berriro ere erretzen ibili zara? Badakizu debekatuta dagoela.

• **Pazienteen senide eta lagunei**

- Zarata handia dago hemen. Egon isilik edo hitz egin apalago, mesedez.
- Hemen debekatuta dago jatea.
- Gaixo bakoitzeko gelan ezin dira bi lagun baino gehiago egon. Baten batek irten behar duzue, mesedez.
- Jende gehiegi zaudete gelan. Irtengo zarete, mesedez, eta txandaka sartu?
- Badakizue ospitalea ez dela umeentzako leku egokia.
- Ez utzi gaixoari bakarrik altxatzen. Zutitu nahi badu, abisatu guri, mesedez.
- Bisitak arratsalde zuzenean dira, orain ezin da inolr igo.
- Ate horretatik aurrera Osakidetzako langileak baino ezin dira sartu. Ez duzue errotulua irakurri?

Pazientearen beldurrari edo kexari erantzun

- Trankil egon, hau egiten ohituta nago eta.
- Egon lasai, ez duzu minik izango eta.
- Egidazu kasu, mesedez; ikusiko duzu zer arin eta zer ondo egiten dugun.
- Lehen esan dizudan bezala egiten baldin baduzu, berehala bukatuko dugu.

Megafonia bidezko mezuak

- Anton Ruiz Bizkarregi, sartu 3. gelara, mesedez.
- Olatz Merino, etorri zeladoreen gunera, mesedez.
- Miren Ostolazaren senideak, hurbildu zeladoreen gunera, faborez.
- Pablo Segura Etxebarriaren laguntzaileak, esnatze-gelara pasa zaitezke.
- Mikel Gartziaren senideak, joan zaitezte idazkaritzara, mesedez.

Pazienteak edo senideak administraziora bideratu

- Lehenbizi, joan zaitezte Onarpen-unitatera, mesedez; bertan emango dizkizute proba egiteko behar dituzuen paper guztiak.
- Edozein egiaztagiri behar izanez gero, harrera-lekura jo behar duzu.
- Administrazioan argibide gehiago emango dizkizute ospitaleko arau eta ordutegiei buruz.
- Erreklamazioak Paziente eta Erabiltzaileen Arreta Zerbitzuan aurkeztu behar dira. Sarrera nagusiaren ondoan dago.

Hildako pazientearen gorpua eraman aurretik, senideei jakinarazi

- Mila Arregiren senideak zarete? Barkatu, zuen senidearen gorpua ospitaleko beilatokira (tanatoriora) eramateko agindua eman digute. Sentitzen dugu. Nahi baduzue, beilatokira joan zaitezket. Eraikin honen atzean dago; letra handiko errotulua ikusiko duzue.
- Barkatu, orain Jesus Mariren gorpua beilatokira eraman behar dugu. Aurreko eraikineko sotoan dago. Pixka batean itxoiten baduzue, beilatokiko aretora sartzeko aukera izango duzue. Geuk irekiko dizuegu atea.
- Barkatu, Karmeleren gorpua beilatokira eroan behar dugu. Badakizue non dagoen. Gura baduzue, bertara joan ahal zarete; bestela, dolu-gelan itxaron behar duzue.
- Zuen senidearen gorpuari autopsia egin behar diotenez, hotz-ganberara eraman beharra daukagu; ezin dugu beilatokira eraman. Mediku-taldea laster jarriko da zuekin harremanetan, beharrezko esplikazioak emateko.



2.HIZKUNTZARI BURUZKO HAINBAT AZALPEN ARGIGARRI

Pazientea leku batetik beste batera eramatea da eremu asistentzialeko zeladoreen lan nagusia. Eta zeregin horretan zenbait egoera komunikatibo errepikatzen dira sarritan: esaterako, pazientea identifikatzea, paziente eta senideei lekualdatzei buruzko azalpenak ematea, pazienteari haren egoeraz eta sentipenez galdetzea, instrukzioak eta debekuak ematea, edota pazientea lasaitu eta animatu beharra. Ekintza komunikatibo horiei lotutako hizkuntz egitura batzuk ikusiko dira kapitulu honetan.

PAZIENTEAREN IDENTIFIKAZIOARI LOTUTAKO HIZKUNTZ EGITURAK:

2.1. Izena galdetzeko esapideak

Euskaraz, modu askotxo daude pertsona bati haren izena edo izen-abizenak galdetzeko:

Zein da zure izena?

Zer izen duzu?

Nola duzu izena? / Zelan duzu izena?

Nola daukazu izena? / Zelan daukazu izena?

Nola deitzen zara? / Zelan deitzen zara?

Nola deritzu (zuri)? / Zelan deritzu (zuri)?

Nor zara zu?

Zein(tzuk) dira zure izen-abizenak?

Zer izen-abizen dituzu?

Nola dituzu izen-abizenak? / Zelan dituzu izen-abizenak?

Nola dauzkazu izen-abizenak? / Zelan dauzkazu izen-abizenak?

Nola dira zure izen-abizenak? / Zelan dira zure izen-abizenak?

Kontuz

**Nola izena duzu?* galdetzea ez da gomendagarria, galdetzailearen atzean aditza egon behar delako eta ez izena.

→ Hobeto: *Nola duzu izena?*

ZELADOREN AZALPENETAKO HIZKUNTZ EGITURAK:

2.2. Moduzko perpausak

Moduzko perpausak osasun-profesionalek lehenago emandako informazio bat egiaztatzeko eta gogoratzeko erabiltzen dira askotan:

Medikuak esan dizuenetz, zuen aitita ospitalean geratu behar da egun batzuetan

Dakizun legez, beste proba bat egitera joan beharko duzu ondoren.

Niri agindu didaten moduan eraman behar dut pazientea.

Honakoak ditugu moduzko egiturarik erabilienak: *-(e)n bezala*, *-(e)n moduan*, *-(e)n legez*, *-(e)n gisan*, *-(e)nez*, *-(e)nez gero*, *-(e)n antzera*...

Kontuz

Ez nahastu *bezala* eta *bezalakoa*, *moduan* eta *modukoa*, *antzean* eta *antzekoa*, etab. *Bezala*, *moduan* edo *antzean* partikulek *nola* galderari erantzuten diote eta adberbio batekin ordeztu daitezke (*ondo*, *pozik*, *apurtuta*...); eta *bezalakoa*, *modukoa* eta halakoek *nolakoa* galderari erantzuten diote, adjektibo batekin ordeztu daitezke (*ona*, *argia*...) eta *izan* aditzarekin erabiltzen dira gehienbat:

**Proba hori ez da jende askok uste duen bezala* → *Proba hori ez da jende askok uste duen bezalakoa*

2.3. Denborazko perpausak

Paziente eta senideei ematen zaizkien azalpenetan segidako ekintzak deskribatu behar izaten dira maiz, eta, kasu horietan, denborazko perpausak lagundu egiten dute ekintzen ordena zehazten:

- **AURREKOTASUNA** adierazten duten denborazko egiturak: *aurretik*, *baino lehen(ago)*, *baino arinago*, *-t(z)erakoan*...

Unitatean, ezer egin baino lehen, dokumentazioa utziko dugu

- **GEROKOTASUNA** adierazten dutenak: *ondoren*, *ondotik*, *ostean*, *eta gero* (*soilik aditzekin*), *-(e)nez gero*, *-takoan*, *behin...-takoan* (*behin...-ta*, *behin...ondoren*, *behin...ostean*, *behin...eta gero*).

Erradiologia zerbitzuan itxarongelan utziko zaitut, eta behin erradiografia egin ondoren, solairu honetara itzuliko gara

Orain senideok kanpoan itxaron behar duzue; amaitutakoan, osasun-langileak zuekin jarriko dira harremanetan

- **BEREHALAKOTASUNA** adierazten dutenak: *bezain laster* (*bezain azkar*, *bezain arin*, *bezain agudo*, *bezain pronto*...), *eta berehala* (*eta atoa*, *eta behingoan*, *eta jarraian*...), *orduko*, *-nerako*, *-neko*...

Orain ohatilan etzango zaitugu, erizainen kontroletik deitu bezain laster hara joateko

Proba amaitu eta jarraian dena esplikatuko dizue doktoreak

- **ALDIBEREKOTASUNA** adierazten dutenak: *-(e)nean, -(e)la, -(e)larik, -(e)n bitartean, -(e)n artean, -tzean, -tzearekin batera (-tzeaz batera)...*

Bat, bi eta hiru esaten dudanean, egin indar pixka bat eta neuk altxatuko zaitut

Psikiatriako solairuan ospitaleratzen duten bitartean, senideok atartean itxaron behar duzue

- **MAIZTASUNA** adierazten dutenak: *-(e)n bakoitzean, -(e)n guztietan, -(e)netan, -(e)n aldiro, -(e)n gehienetan...*

Proba hau egiten duten guztietan horrela jokatzeko dute

Orobat, denborazko egiturekin batera, sekuentzia markatzen duten testu-antolatzaileak ere erabiltzen dira sarri: *hasteko, gero, ondoren; lehenik, bigarrenik, azkenik...*

Lehenengo, ohe ertzerantz mugituko zaitut. Horretarako, utzi behar didazu beso bat sorbaldaren atzetik eta bestea izterren azpitik sartzen. Holaxe! Orain, bizkarra zuzentzen dizudan bitartean, kokatu oinak lurrean. Horrela, oso ondo! Eta azkenik, besapeetatik tiratzen dizudan bitartean, zapaldu ondo lurrean eta zutitu. Primeran!

Kontuz

**Bukatuko dutenean, gelara ekarriko zaitut berriro. -Ko...-nean ez da zuzena, -tzen...-nean izan behar da.*

→ Bukatzen dutenean, gelara ekarriko zaitut berriro

**Minik ez duzunean sentitzen... → Hobe ordena hau: Minik sentitzen ez duzunean...*

Ez da komenigarria *-tzean* eta *-tzerakoan* nahastea: lehenengoak (*-tzean*) aldiberekotasuna adierazten du (gaztelaniazko *al + inf.*) eta bigarrenak (*-tzerakoan*) aurrekotasun pitin bat (gaztelaniazko *al ir a...*)

2.4. Helburuzko perpausak

Paziente bat leku batetik beste batera mugitu aurretik, pazientea agurtu eta identifikatzeaz gain, mugimenduaren zergatia ere azaldu behar dio zeladoreak. Eta horretarako, oso erabiliak dira helburuzko egiturak: *-t(z)eko, -t(z)era, -t(z)eko asmoz/-t(z)eko asmotan/-t(z)ekotan, -t(z)earren, -t(z)e aldera...*

Ezkerreko hanka burko baten gainean jarri dizut tolestuta, ez nekatzeko

Posizioz aldatzen laguntzera etorri gara

Medikua laster irtengo da zuekin hitz egiteko asmoz

Subjuntiboa ere erabil daiteke helburua adierazteko:

Horko eserlekura eramango zaitut, atsedean apur bat har dezazun

Kontuz

Mugimendua adierazten duten aditzekin (*joan, etorri, iritsi, sartu, irten...*) hobe da *-t(z)era* erabiltzea, ez *-t(z)eko*:

**Medikua orain etorriko da zuekin hitz egiteko* → *Medikua orain etorriko da zuekin hitz egitera*

2.5. *-ko*, geroaldiaren aspektu-marka

Batzuetan, erdararen eraginez, etorkizuneko ekintzak aipatzeko *-t(z)en* aspektu-marka erabiltzen da modu okerrean (**gero zure bila itzultzen naiz berriro*). Halakoetan, etorkizunaren aspektu-marka erabili beharra dago beti (*-ko/-go*):

**Zure senideei deitzen diegu?* → *Zure senideei deituko diegu?*

**Bitartean, itxarongelan itxoiten duzue, mesedez?* → *Bitartean, itxarongelan itxoingo duzue, mesedez?*



2.6. Zenbakiak

0 zero	22 hogeita bi
1 bat	22 hogeita bi
2 bi	23 hogeita hiru
3 hiru	24 hogeita lau
4 lau	25 hogeita bost / hogeita bortz
5 bost / bortz	26 hogeita sei
6 sei	27 hogeita zazpi
7 zazpi	28 hogeita zortzi
8 zortzi	29 hogeita bederatzi
9 bederatzi	30 hogeita hamar
10 hamar	
11 hamaika	40 berrogei
12 hamabi	50 berrogeita hamar
13 hamahiru	60 hirurogei
14 hamalau	70 hirurogeita hamar
15 hamabost / hamabortz	80 laurogei
16 hamasei	90 laurogeita hamar
17 hamazazpi	100 ehun
18 hamazortzi / hemezortzi	
19 hemeretzi	101 ehun eta bat
20 hoge	
21 hogeita bat	200 berrehun
	300 hirurehun

Ordinalak

Euskaraz, zenbakiei *-garren* atzizkia erantsiz eratzen dira ordinalak. Salbuespen bakarra bat zenbakia da; haren ordinala lau modutara esan daiteke euskalkien arabera: **lehenengo**, **lehen**, **lehenbiziko**, **lehendabiziko**.

Zenbakia idazten dugunean (ez zenbakiaren izena), *-garren* atzizkiaren ordean puntu bat ipini behar dugu:

1. lehenengo
2. bigarren
3. hirugarren
4. laugarren
5. bosgarren (ez **bostgarren*)

Eta honela ordinala deklinatuz gero:

- 12.a hamabigarrena
- 16.era hamaseigarrenera
- 23.etik hogeita hirugarrenetik
- 37.ean hogeita hamazazpigarrenean
- 60.az hirurogeigarrenaz
- 88.eko laurogeita zortzigarreneko
- 446.a laurehun eta berrogeita seigarrena

Zeladoreen lanetan, ospitaleko solairuen eta gelen berri emateko erabiltzen dira gehienbat zenbaki ordinalak:

Orain 4. solairura eroan behar dut Jose Mari, erradiografia egitera

Dakizunez, Neurologia-unitatean geratuko da ospitalizatuta, 5. solairuan, 502. gelan

2.7. Orduak

Orduak adierazterakoan, batez ere bost gauza hartu behar ditugu kontuan:

- *Ordu bata* singularra da.
- *Hiru* eta *lau* zenbakietan, pluralean *-r*- bat tartekatzen da (*hirurak dira, lauretan amaitu genuen...*), baina *-r*- hori ez da zuzena beste zenbakietan (**zazpiretan, *zortziretan...*)
- Orduak digituekin idazten dira, orduen eta minutuen artean bereizteko bi puntu jarrita.
- Idaztean digituei deklinabide atzizkia eranstean badiegu, gogoan izan behar dugu orduak pluralean deklinatu behar ditugula (*10:00etan, 12:00etatik...*) eta minutuak singularrean (*09:20an, 14:30etik...*, eta ez **09:20etan, *14:30etatik...*)
- Nahiz eta idazteko 24 digitu erabili, ahozko komunikazioan naturalagoa eta gomendagarriagoa da 12 zenbakien sistema erabiltzea, hau da, *seiak hamar gutxiago* esatea eta ez *hamazazpiak eta berrogeita hamar*.

ZER ORDU DA?

07:00	Zazpiak
13:00	Ordu bata Hamahiruak
15:10	Hirurak eta hamar Hamabostak eta hamar
17:15	Bostak eta laurden / Bost eta laurdenak Hamazazpiak eta hamabost
18:30	Sei eta erdiak Hamazortziak eta hogeita hamar
20:35	Bederatziak hogeita bost gutxi(ago) Hogeiak eta hogeita hamabost
22:50	Hamaikak hamar gutxi(ago) Hogeita biak eta berrogeita hamar

ZEIN ORDUTAN?

07:00etan	Zazpietan
13:00etan	Ordu batean Hamahiruetan
15:10ean	Hirurak eta hamarreen Hamabostak eta hamarreen
17:15ean	Bostak eta laurdenetan / Bost eta laurdenetan Hamazazpiak eta hamabostean
18:30ean	Sei eta erdietan Hamazortziak eta hogeita hamarreen
20:35ean	Bederatziak hogeita bost gutxi(ago)tan Hogeiak eta hogeita hamabostean
22:50ean	Hamaikak hamar gutxi(ago)tan Hogeita biak eta berrogeita hamarreen

ZER ORDUTATIK ZER ORDUTARA?

08:00-09:00 08:00etatik 09:00etara	Zortzietatik bederatzietara
10:10-11:05 10:10etik 11:05era	Hamarrak eta hamarretik hamaikak eta bostera
12:15-13:10 12:15etik 13:10era	Hamabiak eta laurdenetatik (hamabi eta laurdenetatik) ordu bata eta hamarrera
13:45-14:00 13:45etik 14:00etara	Ordu biak laurden gutxi(ago)tatik ordu bietara Hamahiruak eta berrogeita bostetik hamalauetara
14:30-14:50 14:30etik 14:50era	Ordu bi eta erdietatik hirurak hamar gutxi(go)tara Hamalauak eta hogeita hamarretik hamalauak eta berrogeita hamarrera

ZER ORDU(TARA) ARTE?

- Ordu bata arte / Ordu batera arte
- Hirurak arte / Hiruretara arte
- Bostak eta hogeia arte / Bostak eta hogeira arte
- Zazpi eta erdiak arte / Zazpi eta erditara arte
- Hamaikak bost gutxi(ago) arte / Hamaikak bost gutxi(ago)tara arte

ZER ORDU INGURU?

- Zortzi eta erdiak inguru dira.
- Hamarrak eta hamar inguruan (aldera) amaituko dugu.
- Hamabiak inguru(ra) arte luzatu zen lehenengo errehabilitazio-saioa

PAZIENTEARI HAREN EGOERAZ ETA SENTIPENEZ GALDETZEKO HIZKUTZ EGITURAK:

2.8. Sentipenen adierazmolde jatorrak

Euskaraz hainbat esapide jator daude hotza, beroa, beldurra, gosea, egarria, lotsa eta bestelako sentrazio eta egoerak adierazteko:

<i>ø izan</i>	Beldur zara?
<i>-ak egon</i>	Egarriak zaude?
<i>-z egon, etorri, irten...</i>	Gosez irten zara?

Beste sentipen batzuk adierazteko esakuneak:

<i>Beldur(ra) eman</i>	Beldur ematen dizu?
<i>-gura, -gale, -larri izan</i>	Txizagura zara?
<i>-ko mina eduki/ukan, minez egon</i>	Bizkarreko mina daukazu, ezta?
<i>Min egin, min eman; min hartu</i>	Min ematen dizu oraindik?

Kontuz

Esapide-mota hauetan, *izan* aditzaren lokuzioetan ez da -a artikulua jarri behar: **Hotza zara?* → **Hotz zara?**

PAZIENTEARI INSTRUKZIOAK EDO DEBEKUAK EMATEKO HIZKUNTZ EGITURAK:

2.9. Agintera

Euskaraz hainbat modu ditugu aginduak eta jarraibideak emateko:

Aditz partizipio soilarekin	Jesarri hemen, mesedez, eta ez egin mugimendu bortitzik
Aginterako aditz laguntzailearekin (<i>zaitez, ezazu, itzazu...</i>)	Etzan zaitez ohatilan eta saia zaitez hanka ez tolesten
Aditz trinkoarekin (<i>egizu, eramazu, zoaz, zaude, zatoz...</i>)	Zaudete lasai; orain emango dizuete informazioa
<i>Behar izan</i> aditzarekin	Hanka goian eduki behar duzula esan dizu medikuak, ezta?
<i>Beharrezkoa da, ezinbestekoa da, funtsezkoa da...</i> esakuneen bidez	Orain beharrezkoa da beste ohatila horretara pasatzea
<i>Beharra dago, beharra duzu...</i> esakuneen bidez	Itxarongelan geratu beharra daukazu
<i>Ezin izan</i> aditzarekin	Komunera ezin zara bakarrik joan. Jo ezazu txirrina eta berehala etorriko gara laguntzera
Aditza geroaldian erabilia	Erradiografia egitera eramango zaitut orain
Forma inbertsonala ezezkoan erabilia	Kasu horretan lepoa ez da mugitzen
<i>Saiatu, ahalegindu...</i> aditzekin	Saiatu beso horrekin indarrik ez egiten
<i>Barik</i> edo <i>gabe</i> posposizioekin	Hankak luzatu gabe, mesedez

2.10. Debekuak adierazteko esakuneak

Debekuak adierazteko ere zenbait modu ditugu:

<i>Debekatuta (galarazita) dago, debekatuta daukagu...-t(z)ea</i>	Hemen galarazita dago erretzea
<i>Ezin da, ezin duzu...</i>	Proba egin arte ezin duzu ezer jan, gogora ezazu
<i>Ezinezkoa da....-t(z)ea</i>	Barkatu, baina ordu hauetan ezinezkoa da pasilloetan ibiltzea

<i>Ez dago, ez dugu... -t(z)erik</i>	Gauean, 12:00etatik aurrera ez dago telebista ikusterik
<i>Beharrezkoa da, ezinbestekoa da, funtsezkoa da...</i>	Zarata handiegia dago hemen. Ezinbestekoa da isilago hitz egitea, bestela kalera irten behar duzue
<i>Badakizu, badakizue ...-(e)la</i>	Badakizu ospitalea ez dela umeentzako leku egokia
<i>Ez da komeni, ez zaizu komeni, ez da gomendatzen...-t(z)ea</i>	Ez da komeni gelan gaixo batekin bi lagun baino gehiago egotea. Baten bat irten behar da

PAZIENTEARI INSTRUKZIOAK EDO DEBEKUAK EMATEKO HIZKUNTZ EGITURAK:

2.11. Lasaitzeko esakuneak

- | | | |
|--------------|---------------|-------------------------|
| - Trankil | - Ez arduratu | - Ez da ezer gertatzen |
| - Lasai | - Ez urduritu | - Izan konfiantza |
| - Ez kezkatu | - Hartu lasai | - Ikusiko duzu zer ondo |

2.12. Animo interjekzioak

- | | | |
|---------------|---------------------|---------------------|
| - Aupa! | - Epa! | - Horrela! |
| - Holaxe! | - Hola, hola! | - Ederto! / Ederki! |
| - Hori, hori! | - Hori duk/dun eta! | - Primeran! |
| - Bapo! | - Eutsi! | - Segi! |
| - Aurrera! | - Animo! | |

3. LANEKO OINARRIZKO HIZTEGIA

Zeladoreentzako gaztelania-euskara hiztegitxo honetan ez dago jasota eremu asistentzialeko zeladoreek erabiltzen duten lexiko guztia, haien eguneroko zereginetan gehien erabiltzen diren terminoen bilduma baino ez baita. Dena den, gidaliburuaren amaieran orri zuri batzuk utzi ditugu, erabiltzaileak oharrak har ditzan. Eta interesgarria litzateke hemen agertzen ez diren terminoak orri horietan idaztea, aurrera begira lan hau osatzen eta aberasten jarraitu ahal izateko.

Eremu asistentzialeko zeladoreek lan-jardunetan termino bat sarritan erabiltzea izan da hitz hori hiztegi honetan sartzeko irizpide nagusia.

Batzuetan hitz beraren bi ordain aurkituko dituzu hiztegian (sinonimoak). Beroriek bereizteko koma (,) ipini da. Erabilerari begira, kasu horietan gomendagarriena da pazienteari ezagunena eta hurbilena zaiona aukeratzea.

Kontsultak egitean, gogoratu hiztegietan euskal hitzak mugagabe kasuan agertzen direla, baina, esaldiak osatzeko orduan, gehien-gehienetan forma mugatuetan deklinatu behar direla, hau da, -a, -ak, -ek, -(e)an, -arekin, -etara eta bestelako bukaerekin.



3.1. Osasun-zerbitzuak eta instalazioak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
administración	administrazio	emergencia	emergentzia
admisión	onarpen	endocrinología	endokrinologia
ambulancia	anbulantzia	endocrinólogo, -a	endokrinologo
ambulatorio	ambulatorio	enfermería	erizaintza; erizaindegia (lekua)
área de celadores, zona de celadores	zeladoreen gunea	enfermero, -a	erizain
área o zona quirúrgica	alde kirurgiko	farmacia	farmazia
aseo, baño	komun	fisioterapeuta	fisioterapeuta
asistencia a domicilio	etxeko laguntza, etxeko asistentzia	fisioterapia	fisioterapia
atención especializada	arreta espezializatu	ginecología	ginekologia
atención primaria	lehen mailako arreta	ginecólogo, -a	ginekologo
biblioteca	liburutegi	habitación	(ospitalizazio) gela
botiquín	botikin	hospital	ospitale, erietxe
cafetería	kafetegi	hospital de día	eguneko ospitale
cámara de frío	hotz-ganbera	hospital psiquiátrico	ospitale psikiatriko
cardiología	kardiologia	hospitalización a domicilio	etxeko ospitalizazio
cardiólogo, -a	kardiologo	laboratorio	laborategi
centro de salud	osasun-zentro, osasun-etxe	matrona	emagin
cirujano	zirujau	medicina general	medikuntza orokor
cirugía	kirurgia	medicina interna	barne-medikuntza
cirugía sin ingreso	ospitaleratze gabeko kirurgia	médico de familia	familia-mediku
consulta	kontsulta	nefrología	nefrologia
control de enfermería	erizaintzako kontrol	nefrólogo, -a	nefrologo
cuidados paliativos	zainketa aringarriak	neonatología	neonatologia
dermatología	dermatologia	neumología	pneumologia
dermatólogo, -a	dermatologo	neurocirujía	neurokirurgia
dirección	zuzendaritza	neurología	neurologia
		odontología	odontologia
		oftalmología	oftalmologia
		optometrista	optometrista
		otorrinolaringología (ORL)	otorrinolaringologia (ORL)

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
partos	erditzeak	servicio de seguridad	segurtasun-zerbitzu
pediatra	pediatra	tanatorio	beilatoki, tanatorio
pediatría	pediatría	terapia ocupacional	terapia okupazional
planta de hospitalización	ospitalizazio-solairu	tocoginecología	tokoginekologia
psicólogo, -a	psikologo	toxicomanías	toxikomaniak
psiquiatra	psikiatra	trastornos alimentarios	elikadura-nahasmendu
psiquiatría de adultos	helduen psikiatria	traumatología	traumatologia
psiquiatría infanto-juvenil	haur eta gazteen psikiatria	traumatólogo, -a	traumatologo
quirófano	ebakuntza-gela, operazio-gela	unidad de aparato digestivo	digestio aparatuaren unitate, aparatu digestiboaren unitate
radiología	erradiologia	unidad de aparato respiratorio	arnas aparatuaren unitate
reanimación	bizkorketa	unidad de cuidados intensivos (UCI)	zainketa intentsiboen unitate (ZIU)
recepción	harrera-leku (tokia); harrera (egintza)	unidad del dolor	minaren unitate
rehabilitación	errehabilitazio	urgencias	larrialdiak
sala de aislamiento	bakartze-gela	urología	urologia
sala de autopsia	autopsia-gela	urólogo, -a	urologo
sala de despertar	esnatze-gela		
sala de duelo	dolu-gela		
sala de espera	itxarongela		
sala de estar	egongela		
sala de reanimación	bizkortze-gela, suspertze-gela		
salud mental	osasun mental		
secretaría	idazkaritza		
servicio de atención al paciente y usuario (SAPU)	paziente eta erabil-tzaileen(tzako) arreta zerbitzu (PEAZ)		

3.2. Giza gorputza

➔ GORPUTZEKO ATALAK

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
abdomen	abdomen
abductor	abduktore
antebrazo	besaurre
axila	besape, galtzarbe
barbilla	kokots
boca	aho
brazo	beso
cabello	ile, bilo
cabeza	buru
cadera	aldaka, mokor
cara	aurpegi
ceja	bekain
cintura	gerri
codo	ukondo
cogote	kokote
columna vertebral	bizkarrezur
cuello	lepo, sama, idun
culo	ipurdi
dedo (de la mano)	hatz, atzamar, eri
dedo (del pie)	behatz
disco	disko
entrepierna	hankarte, iztarte
espalda	bizkar
frente	bekoki, kopeta
hombro	sorbalda, besaburu
hueso	hezur
labio	ezpain
lengua	mihi, mingain
mandíbula	masailezur, matrailezur
mano	esku
mejilla	masail, matrail
muela	hagin

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
muñeca	eskumutur
muslo	izter
nalga	ipurmasail, ipurmami
nariz	sudur
nuca	garondo
ojo	begi
ombligo	zilbor, zil
oreja	belarri
paladar	ahosabai
pecho	bular, papar
pelo	ile, bilo
pene	zakil
pestaña	betile
pezón	titiburu, titimutur
pie	oin
pierna	hanka, zango, berna
pubis	pubis
puño	ukabil
rodilla	belaun
seno	kolko, titi
sobaco	besape, galtzarbe
talón	orpo
testículo	barrabil
tobillo	orkatila
tórax	torax
tripa	tripa, sabel
tronco	enbor
uña	azazkal
viscera	errai
vulva	bulba, alu

→ ORGANOAK

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
ano	uzki
bazo	bare
cerebro	garun, burmuin
corazón	bihotz
esófago	hestegorri, esofago
estómago	urdail
hígado	gibel
intestino	heste
ovario	obario, obulutegi
páncreas	pankrea, are
pulmón	birika
recto	ipurteste, ondeste
riñón	giltzurrun
tráquea	trakea, zintzur-heste
útero	umetoki
vagina	bagina
vejiga	maskuri, puxika

→ ESKELETOA

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
cadera	aldaka, mokor
clavícula	klabikula, lepauztai
costilla	saihets-hezur
cóccix	kokzix, uzkorno
esternón	bularrezur
fémur	femur, izterrezur
húmero	humero, besahezur
mandíbula	baraila, masailezur, matrailezur
omoplato	eskapula, omoplato, sorbalda-hezur
pelvis	pelbis
peroné	perone
pubis	pubis
rótula	errotula, belaunezur, belaunburu
tibia	tibia, berna-hezur
vértebra	orno



3.3. Gaixotasun, lesio eta osasun-arazorik ohikoenak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
abatimiento	abaildura, akidura
accidente	istripu
aerofagia	aerofagia
afasia	afasia
ahogo	itolarri, itoaldi, itobehar
bocio	golo
bronquitis	bronkitis
bulimia	bulimia
caída	erorketa, eroriko, jauskera
cáncer	minbizi
catarata	katarata, begi-lauso
cólico	koliko
colitis	kolitis
conjuntivitis	konjuntibitis
contingencia común	kontingentzia arrunt
contusión	kontusio, ubel, ubeldura
convulsión	konbultsio
depresión	depresio
dermatitis	dermatitis
desnutrición	desnutrizio
diabetes	diabetes
diarrea	beherako, sabeleko
discapacidad	ezgaitasun
disfagia	disfagia
efecto secundario	bigarren mailako ondorio, albo-ondorio
enfermedad congénita	sortzetiko gaixotasun
enfermedad de la piel	larruazaleko gaixotasun
enfermedad del aparato locomotor	lokomozio-aparatuko gaixotasun
enfermedad del sistema cardiocirculatorio	bihotz eta zirkulazio sistemako gaixotasun

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
enfermedad del sistema central	nerbio-sistema zentraleko gaixotasun
enfermedad del sistema digestivo	digestio-sistemako gaixotasun
enfermedad del sistema inmunológico	sistema immunologikoko gaixotasun
enfermedad del sistema respiratorio	arnas sistemako gaixotasun
enfermedad infecciosa	gaixotasun infekzioso
enfermedad pulmonar	biriketako gaixotasun
obstructiva crónica (EPOC)	buxatzaille kroniko (BGBK)
epilepsia	epilepsia
esguince	bihurritu
estreñimiento	idorreri
estres	estres
fractura	haustura
golpe	kolpe
gripe	gripe
hematoma	hematoma
hemiplejia	hemiplegia
hemorragia	odoljario
hemorroide	hemorroide
hepatitis	hepatitis
herida	zauri
herpes	herpes
hinchazón	hantura, handitu
hongo(s)	onddo(ak)
incapacidad	ezintasun
infarto	infartu, bihotzeko
infección	infekzio
inflamación	hantura, handitu

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
insuficiencia cardiaca	bihotz-gutxiegitasun	osteoporosis	osteoporosi
insuficiencia renal	giltzurruneko gutxiegitasun	psoriasis	psoriasi
insuficiencia respiratoria	arnas gutxiegitasun	quemadura	erredura
intoxicación	intoxikazio	quiste	kiste
lesión	lesio	resfriado, constipado	hotzeri, burutik beherako, marranta
lumbalgia	lunbalgia	torcedura	bihurdura, zaintiratu
malformación	malformazio	tortícolis	tortikolis
minusvalía	minusbaliotasun	traumatismo	traumatismo
neoplasma	neoplasma	trombosis	tronbosi
neumonía	pneumonia, biriketako, alborengo	tumor	tumore
obesidad	obesitate	úlceras	ultzera
		vértigo	bertigo



3.4. Probak, analisiak, interbentzioak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
anestesia	anestesia
biopsia	biopsia
cesárea	zesarea
cirujía	kirurgia
cura	sendaketa, osaketa, sendatze
ecografía	ekografia
electrocardiograma	elektrokardiograma
escáner	eskaner
espirometría	espirometria
examen médico, revisión médica	azterketa mediko
exploración	miaketa
gastroscofia	gastroskopia

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
homodiálisis	hemodialisi
laparoscopia	laparoscopia
mamografía	mamografia
operación	ebakuntza, operazio
prueba de esfuerzo	esfortzu-proba
radiografía	erradiografia
rayos X	X izpiak
resonancia magnética	erresonantzia magnetiko
sutura	jostura
tomografía	tomografia
transfusión	transfusio
trasplante	transplante



3.5. Laneko hainbat termino espezifiko

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
acompañante	laguntzaile, lagun
aislamiento	bakartze, isolamendu
almohada	burko, buruko
alta	alta
alza de baño	komun-ontziko altxagarri, komun-ontziko jasogarri
anatomía patológica	anatomia patologiko
antisepsia	antisepsi
arco salvasábanas	izaratik babesteko uztai
arnés	arnes
ascensor	igogailu
atender	artatu
ayudante	laguntzaile
balón de insuflación	intsuflazio-balo
barrera de cama, barandilla de cama	oheko barrera, oheko baranda
boca abajo	ahoz behera, ahuspez
boca arriba	ahoz gora, aratinik
bomba de nutrición parenteral	nutrizio parenteraleko ponpa
bomba de perfusión	perfusio-ponpa
cabecera de la cama	oheburu
cadáver	gorpu, hilotz
cambio de posición	posizio-aldaketa
cambio postural	jarrera-aldaketa
camilla	ohatila, esku-ohe
camilla hidráulica	ohatila hidrauliko
cápsula	kapsula
carro de comida	janari-orga, jaki-orga
carro de curas	sendaketa-orga, sendaketa-gaien orga
carro de farmacia	farmazia-orga, farmazia-gaien orga

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
carro de lencería	arropa zuriaren orga
carro de parada (cardio-respiratoria)	(bihotz-arnaseko) geldialdirako orga
cita	hitzordu, zita
colchón anti-escaras	eskaren kontrako koltxoi
compresa	konpresa
confidencialidad	konfidentzialtasun
contacto con el paciente	pazientea ukitze, pazientearekiko kontaktu
contenedor de desechos clínicos	hondakin klinikoek edukiontzi
correa	uhal
cuadro balcánico	sintoma balkaniko, ezaugarri balkaniko
cuidado (asistencia)	zainketa
cuna	sehaska, kuma
cura	sendaketa
curar(se)	sendatu, osatu
decúbito	etzanera
descanso (parada)	geldialdi
descanso (reposo)	atseden
desconectar	deskonektatu
desinfectante	desinfektatzaile
desinfectar	desinfektatu
doblar	tolestu
doctor, -a	doktore
documentación clínica	dokumentazio kliniko
doler	min eduki, min izan
dolorido	mindu, minberatu
drenaje	drainatze
ecocardiógrafo	ekokardiografo
ecógrafo	ekografo

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
electrocardiógrafo	elektrokardiografo
emplazamiento	kokapen
endoscopio	endoskopio
equipo calentacamás	ohea berotzeko ekipamendu, ohea berotzekoak
equipo portátil de rayos	izpi eramangarriak, izpien gailu eramangarri
erguirse, ponerse en pie	zutitu, zutundu
escabel	oin-aulki, kaxeta
escopia (rayo)	eskopia (izpi)
esparadrapo	esparatrapu
estado de salud	osasun-egoera
familiar (persona)	senide, ahaide, familiako
férula de Brown y pesas	Brown ferula eta pisuak
fiebre	sukar, kalentura
flexionar	flexionatu, makurtu
grúa	garabi
grupo sanitario	talde sanitario
hacer fuerza	indar egin
hemofiltro	hemofiltro
herida	zauri
higiene de manos	eskuen higiene
higiene postural	jarrera-higiene
hospitalización programada	ospitaleratze programatu
hospitalizar	ospitaleratu, ospitalizatu
identidad del paciente	pazientearen nortasun
indisposición	ondoez
informe de alta	alta-txosten
informe médico	txosten mediko
ingresar	ospitaleratu
intimidad	intimitate
jadeante	arnasestuka
justificante	egiaztagiri, agiri

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
justificante de asistencia	bertaratze-agiri
lado, de	alboka, saiheska, alboz
máquina de hemodiálisis	hemodialisi-makina
mareo	zorabio
medicación	medikazio
medicamento	medikamendu, sendagai, botika
médico	mediku, sendagile
medida preventiva	prebentzio-neurri
mesa de comer	jateko mahai
mesa de quirófano	ebakuntza-mahai
mover	mugitu
movilidad	mugikortasun
número de cama	ohe-zenbaki
número de habitación	gela-zenbaki
oxígeno	oxigeno
paciente	paziente
pañal	pixoihal
paritorio	erditze-gela, erditzeko gela
parto	erditze
pasillo	pasillo, korridore
pastilla	pastilla
periodo de convalecencia, periodo de recuperación	susperraldi
pesa	pisu
peso	pisu
píldora	pilula
post-operatorio	ebakuntza ondo, operazio ondo
preparativo, preparación	prestaketa
presentarse	nork bere burua aurkeztu
prueba complementaria	proba osagarri
pulsera de identificación	identifikazio-eskumuturreko
punción	ziztada

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
punzada	sastada, ziztada	tacataca, andador	taka-taka, eskorga
purificador de ambiente	giro-arazgailu	tarjeta sanitaria	osasun-txartel
queja	kexa	tensiómetro	tentsiometro
rampa, chapa	arrapala	tensiómetro de pie	tentsiometro hankadun, hankadun tentsiometro
reanimación	bizkortze, suspertze	timbre	txirrin
reclamación	erreklamazio	torre de laparoscopia	laparoskopia-dorre
recuperación	sendatze, osatze, suspertze	trabajador social	gizarte-langile
relajar	erlaxatu	transfer	transfer
respirador	arnasgailu	transpaleta eléctrica	transpalet elektriko
respirador artificial portátil	arnasgailu artifizial eramangarri	transpaleta manual	eskuzko transpalet
seguridad del paciente	pazientearen segurtasun	traslado	lekualdatze
seguridad social	gizarte-segurantz	tratamiento	tratamendu
silla de ruedas	gurpil-aulki	tubo	hodi, tutu
sillón de acompañante	laguntzailearen jesarleku, laguntzailearen eserleku	tubo de Mayo, cánula de Guedel	Mayo hodi, Guedel kanula
sonda	zunda	tubo neumático	hodi pneumatiko, tutu pneumatiko
suero	serum	unidad de destino	helmuga-unitate
sueroterapia	serumterapia	usuario	erabiltzaile
tabla de reanimación cardiopulmonar	bihotz-birikak bizkortzeko ohol, bihotz-birikak berpizteko ohol	visita (persona)	bisita, bisitari
tablero de inmovilización espinal	bizkarrezurra immobilizatzeko ohol	visita (tiempo)	bisitaldi


3.6. Ebakuntza-geletako hainbat tresna


GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
adaptador	egokigailu
aparato de isquemia	iskemia-aparatu
aparato de rayos X y televisión	X izpien aparatua telebistarekin
apoyo de cabeza para intervenciones de hombro	sorbaldako ebakuntzetako euskarri
arco de anestesia	anestesia-arku
aspirador	xurgagailu
barra de tracción	trakzio-barra
bisturí eléctrico	bisturí elektriko
bomba de infusión	Infusio-ponpa
calota de cabeza	bururako kalota
cabecero	oheburuko
calentador de sueros	serum-berogailu
carro de anestesia	anestesia-orga
carro para intubación difícil	intubazio zailetako orga
carro soporte de accesorios	osagarrien orga
chaleco protector de rayos	izpietatik babesteko txaleko
cincha	segurtasun-uhala
colchoneta de vacío	huts-koltxoneta
consola	ekografo
desfibrilador	desfibriladore
dispositivo de colocación de rodilla	belaun-euskarri
ecógrafo	ekografo
guía de elongación	elongazio-gida
manguito	mahuka
manta térmica	manta termiko, tapaki termiko

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ
mesa de mano	esku-mahai
mesa quirúrgica	mahai kirurgiko
mesa de Mayo	Mayo mahai
mesa de tracción	trakzio-mahai
soporte glúteo-dorsal	bizkarraldearen euskarri
pieza de fijación	finkagailu
placa apoyo piernas	hanka-euskarriaren plaka
placa de elongación	elongazio-plaka
polea de tracción	trakzio-polea
porta piernas	zango-euskarri, hanka-euskarri
portasueros	seruma eusteko makila
protección de brazo	beso-babes
quirófano	ebakuntza-gela, operazio-gela
reposabrazos	beso-euskarri
respirador	arnasgailu
rodillo	arrabol
rodete	burute
saquete	zakutxo
soporte axilar o de codo	besape edo ukondoaren euskarri
soporte lateral	alboko euskarri
soporte rodillo pélvico	pelbiseko arrabolaren euskarri
sujetador de cóndilo	kondiloaren euskarri
tope de hombros	sorbaldako tope
torre de endoscopia	endoskopia-dorre
torre de atroscopia	atroskopia-dorre


3.7. Irudiak

→ GORPUTZEKO ATALAK






→ ORGANOAK



→ ESKELETOA



4. BALIABIDEAK

4.1. Gramatika, idazkera, estiloa

- **Euskal gramatika, lehen urratsak (EGLU).** Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.eus
- **Sareko Euskal Gramatika.** Euskal Herriko Unibertsitatea. www.ehu.eus/seg
- **Euskal gramatika osoa.** Zubiri, Ilari; Zubiri, Entzi. Didaktiker, Bilbo, 2000.
- **Euskaltzaindiaren arauak.** Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.eus
- **Zalantza-dantza.** IVAP. www.ehu.eus/azpidazki
- **Eguneroko kukuak.** Osakidetza. www.osakidetza.eus/profesionalak/euskara
- **Kalko okerrak.** Garzia, Juan. www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus
- **Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa.** Esnal, Pello. www.euskaltzaindia.eus
- **Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa.** Euskaltzaindiaren Jagon Saila. www.euskaltzaindia.eus
- **Ortotipografia.** Zubimendi, J. R. www.ehu.eus/azpidazki
- **Puntuazioa egoki erabiltzeko gida.** Garzia, Juan. www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus
- **Letra larriak erabiltzeko irizpideak.** Mujika, Alfontso. www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus
- **IVAPeko estilo liburua.** IVAP. www.ivap.euskadi.eus
- **Berria. Estilo liburua.** Berria egunkaria. www.berria.eus/estiloliburua

4.2. Ariketak, praktikak, online ikastaroak

- **Ikasbil.** HABE. www.ikasbil.net/web/ikasbil/home
- **EHUtsi.** EHU. www.ehu.eus/ehutsi
- **EIBZ.** Nafarroako Gobernua. <http://eibz.educacion.navarra.es>
- **Ikasten.** Hiru.eus. <http://www.hiru.eus/e-ikasi/idiomas/ikasten>

4.3. Hiztegiak

→ HIZTEGI OROKORRAK

Euskarazko hiztegi orokorrak

- **Hiztegi Batua.** Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.eus
- **Orotariko Euskal Hiztegia.** Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.eus

Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco hiztegiak

- **Elhuyar hiztegia.** Elhuyar Fundazioa. www.euskara.euskadi.net/hizt
- **5000 Adorez hiztegia.** Bostak Bat. www.bostakbat.org/azkue
- **Zehazki hiztegia.** EHUKo Euskara Institutua. www.ehu.eus/ehg/zehazki

Euskara-Ingelesa/English-Basque hiztegiak

- **Morris Student Plus hiztegia.** Morris, Mikel. www1.euskadi.net/morris

Euskara-Frantsesa/Français-Basque hiztegiak

- **Freelang.com.** Gilen, Amandine. www.freelang.com/enligne/basque

Hiztegi orokor bereziak

- **Sinonimoen hiztegia.** UZEI. www.uzei.eus/online/sinonimoen-hiztegia
- **Laburtzapenen hiztegia.** IVAP. www.ehu.eus/palazio/LaburtzapenenHiztegia



➔ HIZTEGI ESPEZIALIZATUAK

Terminologia banku publikoa

- **Euskalterm.** Eusko Jaurlaritza. www.euskadi.eus/euskalterm

Osasun-arloko hiztegi espezializatuak

Osakidetzaren webgunean (www.osakidetza.eus/profesionalak/euskara) osasun-eremuko hainbat espezializaziotako hiztegi terminologikoak kontsulta daitezke:

- **Administrazio sanitarioko hiztegia.** Osakidetza, Eusko Jaurlaritza, UZEI.
- **Osakidetzako errotulazioa.** Osakidetza.
- **OOEren Medikuntza hiztegia.** Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea.
- **Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren hiztegia.** Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa Ofiziala.
- **Medikuntzako adibidetegia.** EHU.
- **Gaixotasunen nazioarteko sailkapena (ICD 10).** Eusko Jaurlaritza, UZEI.
- **Desgaitasunen eta urritasunen hiztegia.** Eusko Jaurlaritza, UZEI.
- **HIESaren hiztegia.** UZEI.
- **Odontodologiako adibidetegia.** EHU.
- **Psikopatologia hiztegia.** OME.
- **Drogamenpekotasunei buruzko hiztegia.**
Euskadiko Drogamendekotasunei Buruzko Dokumentazio Zentroa.
- **Sexologiako hiztegia.** EHU.
- **Erizaintzako Hiztegia.** EHU.
- **Farmazia hiztegia.** EHU.
- **Osatuz, Hiztegi zalantzak argitzen.** Osakidetza.
- **Etab.**

4.4. Zuzentzaile ortografikoak

- **Xuxen.** Elhuyar Fundazioa. <http://xuxen.eus>
- **Hobelex.** UZEI. www.uzei.eus/hobelex

4.5. Hizkuntzari buruzko kontsulta-zerbitzuak

- **Jagonet galde-erantzunak.** Euskaltzaindia. www.euskaltzaindia.eus
- **Dudanet.** IVAP. www.euskadi.eus
- **Azpidazki, Argitokia.** Euskal Herriko Unibertsitatea. www.ehu.eus/azpidazki/argitokia.asp
- **Eitb.eus Kontsultak.** EITB www.eitb.eus/eu/kultura/euskara/kontsultak

4.6. Euskararen normalizazioa Osakidetzan

Osakidetzaen webgunean (www.osakidetza.eus/profesionalak/euskara) euskararen normalizazioaren inguruko informazio baliotsua kontsulta daiteke:

- **Osakidetza euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretua.**
- **Osakidetza Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana.**
- **Osakidetza hizkuntza ofizialak erabiltzeko protokoloa.**
- **Osakidetza profesional eta zerbitzu elebidunen identifikazio-sistema.**
- **Osakidetza langileentza euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak.**
- **Euskaraz lan egiteko trebakuntza ikastaroak.**
- **Hizkuntza-eskakizunak egiaztatze eta baliokidetzeko prozesuak.**
- **Osatuberri aldizkaria.**
- **Etab.**

4.7. Osakidetzako zeladoreentzako eskuliburuak euskaraz

- **Osakidetzako zeladorearen eskuliburua.** Osakidetzako Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboa, 2011.
- **Donostialdea ESIko zeladoreen eskuliburua.** Donostialdeko ESI, 2015.

4.8. Argibide gehiago

Euskara hobetu, zalantzak argitu, zeure lan-esparruko terminologia ikasi, mintzapraktika egitasmoetan parte hartu edota euskaraz lan egiteko baliabide edo informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazu zeure zerbitzu-erakundeko **Euskara Zerbitzu Teknikora**.





